

DIRU-ITURRIAK

Bazkideok jarriko dugun dirua kopuruz berdina izango da. Beraz, inbertsioa eta gastu totala lehen urtean 18.675€koa dela kontuan izanda, eta nahiz eta gure enpresa forma juridikoak 3.012€ eta 120.002€ arteko sozietate kapitala eskatu bakoitzak 3000€ko ekarpena egingo dugu. Diru kantitate hau lortzeko, bazkide bakoitzak duen ondareaz gain, batzuk familiakoekin mailegu pribatu bat sinatuko dugu notario aurrean. Beraz, hasieran ez dugu banketxeetan mailegurik eskatu beharko gure ekarpenekin eta familia maileguekin ez dugu interesik ordaindu beharko. Gauzak ondo joanez gero eta banatzeko irabaziak izatera heltzen bagara, irabaziaren zati bat enpresan utziko dugu erreserban.

Bestalde, gure ekarpenez gain, nahiz eta hasieran onarpenarekin ez kontatu, Eusko Jaurlaritzaren departamentuan behar den instantzia aurkeztuko dugu diru laguntza eskuratzeko asmoz. Izan ere, urtero, administrazio publikoak, batez ere, Eusko Jaurlaritzako Justizia, lan eta gizarte sailak ekonomia sozialeko sozietateen sorrerarako laguntzako programa espezifikoak diseinatu ohi ditu. Eusko Jaurlaritzatik, jasoko gendukeen diru laguntza 8.000 eurokoa izango litzateke.

Honez gain, Amankomunazgoa gure bezeroa izango denez, beraien gizarte zerbitzuko esparruak gure enpresari azpi kontratua egingo dio 50.000 Euro-gatik. Hau da, amankomunazgoko udal bakoitzak 10.000 euro zuzenduko dio urtero Islada laguntza zerbitzuari, herri horietan aholkularitza zerbitzua eskatzearen.

DIRU-ITURRIAK	
Diru-laguntzak	8.000€
Gure inbertsioa	12.000€
Amankomunazgoarekin kontratua	50.000€
GUZTIRA	70.000€

